

2.011KO URRIAK 6

OHIKO PLENOA.

Bertaratuak:

**ALKATEA
ZINEGOTZIAK:
Bertaratuak:**

Maria Jesus Salsamendi Astiazaran

Jokin Uzkudun Goenaga.
Nerea Agirretxe Aranburu.
Harkaitz Arruti Eizagirre.
Leire Beristain Mendizabal.
Luis Berrondo Lanceta.

Bertaratu gabea:

Iñaki Irulegi Apalantza.

IDAZKARIA:

Maria Etxeberria Urretabizkaia.

Errezilgo Udaletxeko Batzar Aretoan, bi mila eta hamaikako urriaren seiko hogeita bat ordu eta hamar minutu izanik, Errezilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate Anderearen Lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren Zinegotzi Jaun/Andereen partaidetzaz.

Lehendakaritzaren aginduz Batzarra hasi ondoren, Idazkariak adierazi du berau burutu daitekeela legeak ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**LEHENENGO PUNTUA:
2011KO UZTAILAREN 7 ETA ABUZTUAREN 11KO AKTEN ONARPENAK,
BIDEZKOA BADA.**

Alkateak uztailaren 7 eta abuztuaren 11ko akten berri ematen du eta zinegotziak aho batez onartzen dituzte.

**BIGARRENGO PUNTUA:
2012 EKITALDIRAKO ORDENANTZA FISKALEN HASIERAKO ONESPENA.**

Nerea zinegotziak 2.012 ekitaldiko ordenantza fiskalak aldatzeko ondorengo proposamena egiten du. Eta komentatzen du, uraren zergabilketarekin uraren inguruan izan ditugun gastuak estaltzen ditugula.

TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

Iazko urteko tarifei % 2,8ko igoera aplikatuta.

Turismoak

9 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	26,24 euro
9 eta 11,99 zaldi fiskal artekoak	60,29 euro
12tik 13,99 zaldi fiskal artekoak	129,46 euro
14tik 15,99 zaldi fiskal artekoak	145,91 euro
16tik 19,99 zaldi fiskal artekoak	162,38 euro
20 zaldi fiskaletik gorakoak	193,06 euro

Autobusak

21 plaza baino gutxiagokoak	151,65 euro.
21etik 50 plazara bitartekoak	215,94 euro.
50 plaza baino gehiagokoak	269,92 euro.

Kamioiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg. baino gutxiagokoak	76,77 euro.
Karga erabilgarriko 1.000tik 2.999 bitartekoak	151,65 euro.
Karga erabilgarriko 2.999tik 9.999 bitartekoak	215,94 euro.
Karga erabilgarriko 9.999 baino gehiagokoak	269,92 euro.

Traktoreak

16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak	32,17 euro.
16tik 25 zaldi fiskal bitartekoak	50,55 euro.
25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	151,65 euro.

Atoi edo erdiatoiak

Karga erabilgarriko 1.000 kg. baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiagokoak	32,17 euro.
Karga erabilgarriko 1.000 kg.tik 2.999 bitartekoak	50,55 euro.
Karga erabilgarriko 2.999 baino gehiagokoak	151,65 euro.

Beste ibilgailu batzuk: ziklomotoreak eta motozikletak

Ziklomotoreak	8,03euro.
125 cc.ra bitarteko motozikletak	8,03 euro.
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	13,82 euro.
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	27,59 euro.

500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	55,16 euro.
1.000 cc.tik gorako motorrak	113,00 euro.

2011.urtean kobratzea aurreikusten dena gaurko bilketaren arabera: 53.641,41 €

UR HORNIDURA, ZABOR BILKETA ETA ESTOLDERIA ZERBITZUEN GAINEKO TASA

Ur hornidura zerbitzuko tasaren lazko tarifei % 2,8ko igoera aplikatuta (Sehilabetero):

Ur Hornidurako Zerbitzuko Tasak

Etxeko hornikuntza:

Gutxienezko 60 m ³ sei hilabetetan	0,56 euro/m ³ ko
60 m ³ tik 120 m ³ etara	0,68 euro/m ³ ko
120 m ³ tik gora	0,72 euro/m ³ ko

Industri hornikuntza

Gutxienezko 60 m ³ sei hilabetetan	0,93 euro/m ³ ko
60 m ³ tik gora	1,11 euro/m ³ ko

Kontagailua mantentzeagatiko kanona:	3,97 euro
Industrietan kontagailua mantentzeagatiko kanon:	6,96 euro
Lotune eskubideak:	79,62 euro
Lotune birjarpena:	19,86 euro

2011.urtean kobratzea aurreikusten dena gaurko bilketaren arabera: 14.515,84 €

Zabor Bilketako Zerbitzuegatik Tasak Igoera % 2,8a (Sehilabetero):

Herri guneko etxebizitzak	46,45 euro.
Baserriak	30,84 euro.
Taberna, Kafetegi, Elkartek, etab.	93,18 euro.
Industri Lokalak	179,84 euro.
Merkatal Lokalak	72,00 euro.

2011.urtean kobratzea aurreikusten dena gaurko bilketaren arabera: 16.726,28 €

Beste zerga guztiak berdin gelditzea proposatzen da.

Idazkariak aipatzen du, guzti hau berak 2011ko irailaren 26an egindako txostenean jasota dagoela.

Azkenik Idazkariak dio, hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendeaurrean jartzen direla uztailaren 5eko 11/1989 Arau Foralaren 16.1 artikulok xedatutakoari jarriki, interesa duen edonor iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 30 laneguneko epean alegazioak aurkezteko. Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, erabakiak onartutzat joko dira behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Nerea Agirretxe Aranburu, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2.012 ekitaldirako Ordenantza Fiskalak onartuta gelditzen dira.

HIRUGARRENGO PUNTUA:

LANKIDETZA HITZARMENA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ETA ERREZILGO UDALAREN ARTEKOA, ERREZILGO HLHI-KO INSTALAZIOAK LAGATZEKO, HAUR ESKOLA MODUAN ERABIL DAITEZEN BAIMEN ESKAERA ETA ALKATEARI HITZARMENA SINATZEKO BAIMENA EMATEA.

Udalbatzak, aho batez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Errezilgo HLHI-ko instalazioak lagatzeko, haur eskola moduan erabil daitezen eskaera luzatzea onartu du. Eta aldi berean, Alkateari Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin Errezilgo HLHI-ko instalazioak lagatzeko haur eskola moduan erabiltzeko hitzarmena sinatzeko baimena ematea aho batez onartu du.

LAUGARREN PUNTUA:

2011KO SAN ANTONIO JAIETAKO FESTEN LIKIDAZIOA.

Nerea Agirretxe zinegotziak aurtengo San Antonio jaietarako festen likidazioaren berri ematen du, ondorengo kontzeptutan banatuta:

AURREKONTUA

- 1.- Kupela: 1.150 €
- 2.- Antzerkia: 400 €
- 3.- Izer eta Alabier: 600 €
- 4.- Gorriti: 450 €
- 5.- Hamaietakoa: 600 €

LIKIDAZIOA

- 1.- 1.150,00 €
- 2.- 400,00 €
- 3.- 600,00 €
- 4.- 450,00 €
- 5.- 538,88 €

6.- Trikitilariak: Lidia eta beste batzuk: 200 €	6.- 200,00 €
7.- Ume jolasak: 400 €	7.- 337,59 €
8.- Herri kirolak: 1.740 €	8.- 1.740,00 €
9.- Besteak: 200 €	9.- 918,31 €
10.-Megafonia: 150 €	10.- 177,00 €
11.- Dantzariak: 300 €	11.- 360,00 €
12.- Trikipoteoa:	12.- 300,00 €

GUZTIRA- 6.190 €
Aurrekontu prestatua: 6.500 €

Guztira- 7.171,78 €

BESTEAK:

1.- Garbiketa lanak, montaketak:	396,00 €
2.- Pottokak jartzeko terrenoa:	70,96 €
3.- Ikurrina txikiak:	141,13 €
4.- Kamixetak:	99,12 €
5.- Arrate irartiko publizitatea:	200,60 €
6.- Kartulinak:	10,50 €

GUZTIRA- 918, 31 €

DOMUSAKO DIRULAGUNTZA: 1.000,00 €

GUZTIRA- 6.171,78 €

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Maria Jesus Salsamendi Astiazaran, Jokin Uzkudun Goenaga, Arkaitz Arruti Eizagirre, Nerea Agirretxe Aranburu, Luis Berrondo Lanceta eta Leire Beristain Mendizabal.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, San Antonio jaietako likidazioa onartuta geratzen da.

**BOSTGARREN PUNTUA:
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

SEIGARREN PUNTUA:
ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2011ko uztailaren 11tik (115/2011 Alkatetza Ebazpena) urriaren 5ra (153/2011 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

ZAZPIGARREN PUNTUA:
GALDERAK ETA ERREGUAK.

Alkateak ondorengo 2 berrien berri ematen du:

1.- Aitzarteko Joxe hil da eta 12 urteetan Errezilgo Alkate izan denez, Gara eta Hitza aldizkarietan tamaino normaleko eskela bat jartzea proposatzen dut.

2.- Udaletxeko balkoian Euskal Presoak Euskal Herrira maindira jartzea proposatzen dut.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta berrogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.